

# Aurrera !

Informatika eta Telekomunikazioetako Teknologia Berriak Jendarteratzeko Aldizkaria

aurrera doan  
herria




ITZko Bulego Teknologikoak argitaratua

16. zk.

2004ko abendua

Bidali zuen iradokizunak helbide honetara: [aurrera@ej-gv.es](mailto:aurrera@ej-gv.es)



## Aurkibidea

### ➤ SPAM

2. or.

### ➤ Software

Librea:

Ekimen

Autonomikoak

6. or.

### ➤ Alboan:

KZgunea

Programa

10. or.

### ➤ Laburrak:

EJIE Marka

Office2003

Euskeraz

12. or.

**H**as gaitzen amaieratik (“Laburrak” atala). EJIEk pasa den hilabetean ofizialki aurkeztu zuen irudi korporatibo berria erakutsiko dizuegu gure Aldizkari

berriaren azken orrian. Martxoan aurreratu genizuen (Aldizkariko 13. zk.), datozen urteetan izango duen irudi korporatiboaren diseinuaren prozesua hasi zuen EJIEk. “Laburrak” atalarekin jarraituz, Kultura Sailak Euskararen alde egin duen ahalegina adierazi nahi dugu. Kasu honetan, Office 2003 eta Mandrake 10 euskaraz erabiltzeko aukera ematen dio nahi duen erabiltzaileari.

ALBOAN atalari dagokionez, aldizkariaren 5. zenbakian eta bere eranskinean (2001) azaldu genizuen proiektuaren lehenengo pausu horien gaiari ekingo diogu: “KZgunea” proiektuaz ari gara. Lortu diren helburuen ikuspuntutik ekingo diogu oraingoan proiektu honi.

“Software Librea: Ekimen Autonomikoak” izeneko bigarren gaiari dagokionez, kasu honetan bereziki hainbat administrazio autonomikok herritarrei zuzendutako proiektuen inguruan ariko gara. Gainera, soluzio-mota hauek Administrazioarentzat izango lituzketen abantailak azpimarratzen dira artikulua amaieran.

Azkenik, hasierakoarekin amaituko dugu: “SPAM”-ei (“zabor-posta” ere deitzen zaio) buruzko gaia modu laburrean jorratuko dugu, guztiok ezagutzen baitugu zuzenean edo zeharka gai hau... eta, askotan gainera, jasan ere egin behar izaten dugu.

Agurtu aurretik, garai honetan zilegi den moduan,

**ZORIONAK!!**





## SPAM

Gure posta elektronikoko postontziak betetzen dituen negozioa da spam<sup>(1)</sup> delakoa. Interneteko sarbideen hobekuntzaren (igorle nahiz hartzaileen aldetik) ondorioz spam-bolumena hazi egin da. Horren ondorioz, Internet erabiltzen dugun guztiongan eragin soziala, ekonomikoa, funtzionala eta teknologikoa sortzen duen arazoaren aurrean gaude.



### HIZTEGIA

<sup>(1)</sup> **“SPAM”**: Eskatu gabe jasotzaile kopuru handi bati posta elektronikoz bidalitako mezuak (publizitate-helburuarekin, orokorrean) izendatzen dituen terminoa da eta helbideak legez kanpoko metodoez lortutakoak izaten dira normalean. Ingelesez UCE (unsolicited commercial e-mail / eskatu gabeko posta elektronikoa komertziala), UBE (unsolicited bulk e-mail / eskatu gabeko posta elektronikoa masiboa) edo Junk e-Mail (zabor-posta) siglekin ere ezagutzen da.

<sup>(2)</sup> **“SPAMMER”**: Posta baztergarrien hedapen-teknika hauek erabiltzen dituen pertsona.

**“SPACKERS”**: Internetera konektatutako PCak kontrolatzeko hacker-en teknikak erabiltzen dituzten spammer-ak. PC hauek SPAM mezuak bidaltzeko erabiltzen dituzte, bidalketa-gaitasuna handitzen dute, zenbait “anti-spam” teknika ezabatzen dute eta identitatea gordeta mantentzen dute.

**I**turri batzuen arabera, 1978ko maiatzaren 3an bidali zen lehenengo SPAM posta, Digital Equipment enpresako langile batek DEC-20 zerbitzariaren serie berria iragartzeko ARPANET (oraingo Internet sarearen jatorria) sareko posta erabili zuenean.

1994ko apirilaren 12an Arizonako bi abokatuk (Canter eta Siegel) euren langelako zerbitzuak sustatzeko kanpaina sareratu zuten software propio bati esker. Sareko berri-taldeak publizitate horrekin bete zituen programa hark. Milaka erabiltzailek euren atsekabea agertu bazuten ere, marketing-teknika berri hari esker diru-sarrerak asko handitu zituen abokatu-langela hark.

### FUNTZIONAMENDUA

Beheko “formuletakoren” bat erabiltzen dute normalean SPAMMERS<sup>(2)</sup> direlako horiek postaren bidalketa masiboak egiteko:

#### ZEIN DA TERMINO HONEN JATORRIA?


Estatu Batuetako Hormel Foods enpresak 1937an kaleratu zuen haragi xehatuzko latak “Hormel's **Spiced Ham**” izena zuen. Asmakariak izan zuen arrakasta ikustean, fabrikatzaileak izena laburtu zuen: **SPAM**. II. Mundu Gerrako soldaduen elikagaia izan zen, eta mundu osora zabaldu zen 1957an. 60ko hamarkadan are ezagunagoa egin zen, latari gehitu zitzaion irekiera automatikoko eraztun berritzaileari esker.

● **Behin erabiltzen diren kontuak** (“tximistaren taktika”): Jaso nahi izaten ez dugun posta elektronikoa doako helbide horretatik bidaltzen dute spammer-ek, kontua ixten dioten arte.

● **Hedagailu irekiak**: Internetera konektatuta dauden zerbitzarien bila arakaten aritzen dira spammer-ak, gaizki konfiguratuta daudenen bila (“hedagailu ireki” izena ematen zaie), horrela zerbitzari horien

bidez masiboki bidaltzen dituzte mezuak eta benetako jatorria ezkututzen dute.

● **ISP inbaditzaileak**: Mota honetako posta bidaltzen dutenak Interneten errora konektatzen dira eta legezko ISP (**Zerbitzu Hornitzaileak**) batek egingo lukeen moduan, dagozkien tarifak ordaintzen dizkiete telekomunikazio-enpresei. Posta elektronikoa baztergarrien bidaltzaileek etengabe aldatzen dute domeinu-izena, anti-spam galbaheek ez ditzaten hauteman.



Produktu “baztergarriak” SPAM hitzarekin lotzea Monty Python-en “Flying Circus” (1969) komediagatik gertatu zen, bertan “SPAM” hitza inolako zentzurik gabe eta gehiegi erabiltzen baitzen. Une horretan “spam” hitza enpresa komertzialek bidalitako posta fisiko osora (publizitate-liburuxkak) hedatu zen.





Saretik “troiatar” programak hedatzea da spammer-en beste taktika bat: programa honen kodean “SMTP motore” bat (Posta Transferentziako Protokolo Simplea) izaten du, eta horrela, biktimaren PCa posta elektronikoa masiboak bidaltzeko erabiltzen du (gaur egun bidaltzen diren spam mezuen %40 modu honetan bidaltzen dela uste da).



Interneteko edozein erabiltzailek posta elektronikoa atxikitako fitxategi moduan jasotzen dituzte “troiatar” hauek.

Jaso ondoren erabiltzaile fidakorren batek exekutatzea zain gelditzen da programa, erabiltzaile honek zerbitzu jakin baterako (pornografia, etab.) sarbidea izango duelakoan. Baina programa honek egiatan erabiltzailearen PCa posta-zerbitzari txiki batean (“SMTP Relay” zerbitzaria) bilakatuko du. Une horretan, datuak spammer-ari bidaliko dizkio eta “biktimaren” zerbitzari “berria” erabiliko du honek bere mezuak bezero izan daitekeen orori bidali ahal izateko.

Hortik aurrera, irekitako PCra urrunetik konektatuko da spammer-a, eta konkistatu berri duen SMTP zerbitzari berriaren baliabideak eta anonimata aprobetxatuko ditu. Horrela, detektatua izatea ekidingo du eta berea ez den banda zabala erabili ahal izango du.

Asmo txarragoak dituzten beste spammer batzuk postaren bidalketa masiboa publizitaterako erabiltzeaz gain, erasotako euskarrien gaitasuna betetzeko eta blokeatzeko erabiltzen dute. Beheko hauek dira helburu honetarako erabiltzen diren estrategiak:

- **SPAM zuzena:** Helburua **domeinu** bakarra duen posta sortzeari deitzen zaio. Kasu honetan, eraso nahi den domeinuko erabiltzaileetara (existitzen direnak eta ez direnak) milioika posta bidaliko ditu spammer-ak eta, gehienetan gertatzen den moduan, erabiltzaileak existituko ez denez, biktimaren zerbitzariak bidaltzaileari posta bidaliko dio (NDR, Non Delivery Report – Posta ez jaso izana), sarean trafiko gehiago sortuz.
- **SPAM, NDR bidez:** NDR mezuez baliatzen da teknika hau trafikoa sortzeko. Kasu honetan, hala nahi delako,



### HIZKUNTZA

Bidalitako zabor-postaren hizkuntza ere datu garrantzitsua da, postaren **titulua** aztertzeko, tituluaren edukia, edo mezuaren jatorria aztertzeko lengoian oinarritzen baitira antispam galbaheak. Horrela, mezu bat Spam den edo ez zehazten dute.

Ikerketa batzuen arabera, jasotzen den spamaren %90 ingelesez jasotzen da, %4 txineraz eta %3 gaztelaniaz.

Horrelako bidalketen gaietan honelakoak agertu ohi dira: “gratis”, “viagra”, “horny teens”, “dinero fácil”, “adelgace” edo “hágase rico”.

Horregatik, spammer askok ortografia-akatsekin idazten dituzte gaiak (nahita), edo blokeatzeko aukera gehien dituen hitzean tarteak edo puntuazio-markak sartzen dituzte (adibidez, “viagra” idatzi ordez “v;agra” idatziko dute –“i”-aren lekuan harridura-ikurra duela; edo “v i a g r a” tarteekin; edo “viagr@” “a”-ren lekuan a-bildua duela). Eta mezu hauek blokeatzea ez da erraza izaten.

### Postako helbideak lortzea


Behekoak erabili ohi dituzte spammer-ek postarako kontu berriak lortzeko:

- **Internet:** Webgunea sortu duenaren, bisitarien, orrialde-horien, berri-taldean... helbidea biltzen duten orriak.
- Txistek dituzten **e-postak** eta Interneteko erabiltzaileek aurreko helbideak ezabatu gabe bidaltzen dituzten kateetakoak (mezuaren gorputzean dozenaka helbide biltzera iritsi daiteke).
- Zerbitzu jakin bat edo zerbait behera kargatzeko postaren helbide eskatzen direneko **orriak**.
- Enpresa edo partikularren postako helbideak (intereseko gaien arabera sailkatuak) dituzten datu-baseen **erosketa** (herrialde gehienetan legez kanpokoa da).
- **Zerbitzarietan** legez kanpo sartzea.
- **Saiakeragatik** edo erroreagatik (“hiztegiaren metodoa”): Badaude konbina-

zioak egiten dituzten eta posta elektronikorako milaka helbide sortzeko gai diren programak.

### SPAMari aurre egiteko AHOLKUAK

- ✓ **Ez jakinarazi** postako helbideak foro, banaketa-zerrendetan edo webguneetan.
- ✓ Foroetara oharrak bidali nahi badira **posta-kontu alternatiboak** erabiltzea gomendatzen da (edo kontuan karaktereak gehitzea).
- ✓ **Ez erantzun** posta baztergarri. Ezta hartzaileen zerrendatik “ezabatzeko” ere, spammer-ek helbidea baliozkoa den jakiteko erabiltzen duten amarrua izaten baita.
- ✓ Webguneko formularioa bete aurretik (postaren helbidea eskatzen digutenean), **orriaren pribatutasun-deklarazioa** irakurri gune horrek informazioa hirugarren batzuekin partekatzen duen ala ez jakiteko.
- ✓ **Blokea** itzazu postarako programekin (Outlook, Eudora, etab.) bidaltzaile berdina duten posta baztergarriak.



### ZERGATIK EZ DA ONA?

Inolako balio komertzialik ez duten milaka mezu prozesatu eta hedatu behar dute enpresa-sareek. Bestalde, IT sailak denbora, energia eta diru gehiago gastatu beharko du lantokira spam-a sartzea galaraziko duen soluzioa bilatzen, langilearen posturaino ez iristea nahi badu.

- 1.– Sistemen gaitasuna **betetzen** du.
- 2.– Posta elektronikoaren eraginkortasuna **murritzten** du, gogaikarri egiten baitu.
- 3.– Posta arruntaren prozesua **moteltzen** du.
- 4.– Komunikazioetako azpiegitura **kongestionatzen** du
- 5.– Erabiltzaileen denboran **eragiten** du
- 6.– Posta bidali duen enpresaren irudian **eragiten** du.

Mezu gehienak (%40) Estatu Batuetatik datoz, eta honen atzetik kokatzen dira Hego Korea (%15) eta Txina (%12).

hartzaileak **ez dira baliozkoak**, baina domeinuak (@enpresa.com) existitzen du. Gainera, postaren bidaltzailetzat existitzen ez den bat jartzen da. Horrela, hartzaileak existitzen ez direla ohartzen da posta jasotzen duen zerbitzaria, eta posta bidali duen domeinura NDR mezu bat bidaltzen du baliozkoa ez den helbide bakoitzeko. NDR mezu honen hartzailea, aldi berean, existitzen ez den postontzi bat da, eta erasotako domeinuak NDR mezu berri bat sortuko du.

**“1978ko maiatzaren 3an bidali zen lehen aldiz SPAM mezu bat.”**

### LEGEDIA

SPAM gehiena (%40) Estatu Batuetatik dator. Hala ere, herrialde hark ez du aurre egiteko lege nazionalik. Zenbait estatuk spam-aren aurkako legeak badituzte ere, lege federalak eraginkorrak izango lirakeela uste dute gehienek. Australiak, Koreak eta Japoniak, aldiz, spam-aren aurkako lege zorrotzak dituzte eta, besteak beste, honakoak exijitzen dituzte: erabiltzailearen alde aurretiko baimena, “Gaia” atala etiketatzea, etab.

**EUROPA:** Komunikazio elektronikoetan datu pertsonalen eta intimitatearen babesari buruzko Europar Batasuneko 2002/58/CE Arteztarauak Spam-ei buruzko zenbait auzi planteatzen ditu, baita bidalketa komertzial legala zer den ere.

Eskatu gabeko posta komertziala behin betiko kentzeko bi aukera garatzea proposatzen zuen hasiera batean arteztarau europarrak: baimen zehatzik gabeko bidalketa komertzialak zuzenean debekatzea edo bidalketa zer zen argi eta garbi identifikatzera behar-tzea (**publi** edo **publizitatea**, bi hitz horietako bat jarri beharko zuen mezuko “Gaia” atalean) eta, era berean, berma zedila hartzaileak borondatezko kanporatze-zerrendetan izena emateko zuen eskubidea. Espainiako gobernuak lehenengo neurriaren alde egin du.

**ESPAINIA:** “*Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoaren Zerbitzuetako Legearen*” (LSSICE, BOE 2002ko uztailaren 12a) arabera, publizitate-bidalketak debekatuta daude erabil-

tzailearen baimen zehatza duteneko kasuetan izan ezik. Informazioa bidaltzea baimenduta dago, bidalketa horri kontra egiteko aukera eskaintzen bada (inolako kosturik gabe eta modu errazean).

Dena den, hainbat erronka dituzte legeek: spam delakoaren definizioa (eta legezko marketing-teknikekiko bereiztea), mugarik gabeko zibermunduan legegaren aplikazioa adostua, lege-urratzaileak jazarri eta aurkitu, eta zigorrak betearaztea. Azken finean, nekosoa bada eta baliabideak kontsumitzen baditu ere, jarduera hau gaur eguneko delitu txiki bat da.

Gainera, beste praktika larri bati lotuta joan ohi da spam-a: posta elektronikoko helbideak dituzten datu-baseen bidegabeko jabetzea eta bereizketarik



egin gabeko erabilera (DBLOaren aurkako jarduera da, postaren helbidea datu pertsonaltzat hartzen baitu).

### ERRENTAGARRITASUNA vs KOSTUAK

Spam delakoa negozio bikaina da, burutzen duen enpresarentzako ekonomikoa eta errentagarria baita. Adibidez, spammer batek 500.000 posta masibo bidaltzen badu eta bidalketak 5 edo 6 erantzun positibo baditu, arrakastatzat jo daiteke.

Dena den, ez dago iragarleari hain merke eta hartzaileari hain garesti aterako zaion beste publizitaterik (sakelako telefonoen erabiltzaileei kobrantza itzuliaren bidez “zabor-deiak” egitea bezalakoa litzateke).

Bestalde, beren postontzitik posta baztergarria ezabatzen langileak eman behar duen denbora erlaxionatutako kostuak ere badira (adituen arabera, 3 segundo behar dira mezu bakoitzeko). Langileen PCetan birus bat edo “spyware” software bat sartu izanagatik erakundeak burutu behar dituen lan teknikoekin eta segurtasuneko larrialdi-ardurekin lotutako kostuak ere badaude.





Europako Batzordeak duen ikerketa baten arabera, 9.000 milioi dolar da mundu osoko posta elektronikoaren erabiltzaileei spam-ek "lapurtutako" dirua (spam-a jasotzen, irakurtzen eta ezabatzen konektatuta dauden denboragatik ordaindu behar izaten dutena da). Txosten horren arabera, inork eskatu gabeko 500 milioi mezu inguru bidaltzen dira egunero.

Hala eta guztiz ere, beste aldeko ikuspegitik (online-marketingaz arduratzen diren enpresenetik), gutxi batzuen fede txarrak beste batzuen lanari kalterik ez egiteko ahalegin berezia egiten da. Legez kanpoko teknika hauek erabiltzen dituztenetik bereiztea interesatzen zaie konpainia horiei. Horrela, posta elektronikoaren erabilera arrazionalerako oinarriak ezarri nahi dituzten 15 enpresa baino gehiagok osatutako **RECA**

**"Espainian publizitatea bidaltzea debekatua dago, erabiltzailearen baimen zehatza dagoenean izan ezik."**

(Responsible Electronic Communication Alliance) moduko ekimenak sortzen dira.

## ONDORIOA

Diseinatutako "anti-spam" tekniken aldaketekiko agertzen duten moldatze-gaitasun handiari esker, herrialdeen arteko mugak gainditzen dituen arazoan bilakatu dira SPAMak, eta nazio barruko lege-esparruek ezin dute geldiarazteko ezer egin.

Horregatik, epe laburrean konponduko den arazoa baino, **garrantzizko aldaketa legal eta teknikoak behar**

**ditu**, baina Interneteko hornitzaileen laguntza eta posta hori beste herrialdeetatik sortzen duten pertsonen edo enpresen aurka hartu beharreko ekintzei buruzko akordioak ezartzea ere behar ditu.

## GALBAHE-MOTAK

✓ **Zerrenda beltzak:** Spammer-ek erabil ditzaketen edo spammer-ak sartzen uzten dituzten zuloak dituzten postaz-zerbitzarien zerrendak dira. Zerbitzari hauetatik iristen diren mezuak ez onartzea da ideia. Baina ez da spam-a geldiarazteko metodorik egokiena, benetan jaso nahi ditugunak ere blokea baitaitezke.

✓ **Firmen araberrako galbaheak:** Sartu diren mezuak mezu ezagunekin alderatzen dituzte. Beste mezu baten berdina bada Spam-tzat hartzen du. Kasu honetan galbaheak spam-aren %60 harrapatzen du eta ez du blokeatuko benetako mezurik.

✓ **Galbahe Bayesiarrak:** Posta baztergarrietan agertzen diren hitzen estatistiketan oinarritzen dira galbahe hauek. Galbahe bayesiarrak "adimentsuak" dira, denboraren poderioz "ikasten" baitute. Kasuen %99an eraginkorrak dira.

✓ **Arauetan oinarritutako galbaheak:** Mezu baztergarrietan erabilitako hitzen ereduarekin egiten dute lan galbahe hauek (harridurak, datak, hitz itsusiak, etab.) %90ean

eraginkorrak dira.

✓ **Erantzun-erronka galbaheak:** Kontaktu berri baten mezua jasotzean kontaktu honi mezu bat bidaltzen dio bueltan galbahe honek, eta bere mezua entregatua izateko formulario bat bete dezan eskatzen dio. Oso eraginkorra da (%99,9), baina posta elektronikoak bidaltzen dituztenei lan gehiago ematen die.

Gaur egunean SPAMari aurre egiteko teknika ezberdinak (SPF, SRS, SES,...) ezartzen ari dira hainbat forotan baina oraindik ez dakigu horietako zein bilakatuko ote den teknika estandarra.

Frogatu ahal izan dugun moduan, gaur egunean badira horrelako mezu masiboak iragazteko (neurri batean) teknika eta tresnak. Baina artikuluan zehar aipatu dugun moduan, spammer-en teknikak ere oso azkar bilakatzen dira, eta postaz-zerbitzariak kudeatzen dituzten enpresentzat (EJIE gure kasuan) ez da erraza izaten iragazketa hori egitea; batez ere "positibo faltsuak" deitutako arazoarengatik (probabilitate baxua izan arren arriskua mantentzen baita). Ez arriskatzeko egin daitekeen bakarra da mezuak markatu eta erabiltzaileak erabaki dezala SPAM den ala ez.



### SPAM aurkako PRODUKTUAK

SpamKiller (de McAfee)  
IM Message Inspector (Elron)  
IronMail (CipherTrust)  
Matador (MailFrontier)  
MIMESweeper (Clearswift)  
MXtreme (BorderWare)  
Brightmail  
SurfControl  
MDaemon antis spam  
SpamKiller , ...

### WEBGUNEAK

- Posta Elektronikoaren kalitatearen ekimena  
[www.pepi-ii.com](http://www.pepi-ii.com)
- Interneteko Erabiltzaileen Elkarte (AUI/IEE)  
[www.aui.es](http://www.aui.es)
- SpamCon Foundation  
[www.spamcon.org](http://www.spamcon.org)
- Boicot Internet Spam  
<http://spam.abuse.net>
- CAUCE (Coalition Against Unsolicited Commercial Email / Posta Komertzial Baztergarriaren Aurkako Koalizioa)  
[www.cauce.org](http://www.cauce.org)
- Spam Links  
<http://spamlinks.net/>
- Merkataritza Elektroniko-rako Espainiako Elkarte (AECE)  
[www.aece.org](http://www.aece.org)
- RECA (Responsible Electronic Communication Alliance)  
[www.responsibleemail.org](http://www.responsibleemail.org)
- Europar Batasuna  
[http://europa.eu.int/information\\_society/index\\_en.htm](http://europa.eu.int/information_society/index_en.htm)
- Spam Laws  
[www.spamlaws.com/eu.html](http://www.spamlaws.com/eu.html)



## SOFTWARE LIBREA: EKIMEN AUTONOMIKOAK

Software librearena<sup>(3)</sup> ez da sortu berria den mugimendua. Baina orain hasi da mundu mailan asko hazten eta Erkidegoetako Administrazioak ez dira, noski, joera horretatik at gelditu. Horregatik, kode irekia duen softwarea zabaltzeko **hainbat ekimen** sustatzen ari dira.



### HIZTEGIA

<sup>(3)</sup> **Software Libre (SL):**  
Ingurune askotan erabiltzaileek uste dute SL eta "doakoa" gauza bera dela, baina beste batzuen ustetan iturri-kodea erabiltzaileen eskura jartzen duen edozein software da. Baina zer esan nahi du "software libreak"? Definizio onartuenak "4 askatasunetan" oinarritzen dira:

- \* Erabiltzeko askatasuna.  
Programa jasotzen duenak nahi duen modura erabiliko du, nahi duen jarduerarako, nahi duen unean, nahi duen PCan, nahi duen tokian, nahi duen helburuarekin (pribatuak, komertzialak...)
- \* Ikasteko askatasuna. Nahi den moduan ikasi eta aztertu daiteke.
- \* Hobetzeko askatasuna. Gure beharretara egokitzeko moldatu daiteke: pertsonalizatu, hobetu, zabaldu, funtzioa aldatu, errorea konpondu, etab.
- \* Kopiatzeko askatasuna.  
Nahi denari banatu diezaiokegu, horren ordainetan dirua eskatuz edo ez.

**A**zken urteotan erkidegoetako geroz eta administrazio publiko gehiago ari dira software librea erabiltzen (kasu askotan gaiari buruzko berariazko politikarik jarraitu gabe), eta gaur egunean software libreetan oinarritutako soluzioak balioesteko prozesuan ez dauden administrazioak topatzea zaila egingo zaigu. Beste alde batetik, software librea erabiltzeko eta sustatzeko berariazko estrategiak iragarri dituzte zenbait administrazioek, eta nolabaiteko ikusmina piztu dute. Baina kasu bakanak besterik ez badira ere, gero eta garrantzi gehiago dute, eta anekdota-multzo bat edo benetako joera bat den zalantzan jartzera ere iritsi gaitezke.

Software Librearen edo Irekiaren ereduak honako helburuak ditu, azken batean: programetan errazago sartzea, baita autonomia erkidegoen artean garapen / aplikazioak trukatzeko, eta bakoitzaren esparrurako behar diren produktu teknologikoak garatzea edo berritzea ere.

Software mota hau erabiltzeko arazoak, beraz, ez dira ekonomiko hutsak; izan ere, iturri-kodea ezaguna denez eta azter daitekeenez, lor daitezkeen segurtasuna eta pribatutasuna da arazoak garrantzitsuenetako bat. Gainera, softwaren "atzeko ateak" ere ekidin daitezke.

### EKIMEN AUTONOMIKOAK

Azken urteotan euren azpiegitura teknologikoetan software librea erabiltzeko joera agertzen hasi dira administrazio publikoak.

Baina, kasu honetan, herritarrei zuzendutako ekimen nabarmenenak ezagutaraziko ditugu. Zentzu honetan, bereziki hezkuntzaren inguruko kode irekiko sistema eragileak (linux) hedatzen ari dira.

#### ➤ **Extremadurako Junta**

Hezkuntza-sisteman oinarritu da bereziki Extremadurako Juntaren estrategia: Munduak IKTen inguruan funtzionatuko badu, eskualdeko ikastetxeetan hasiera-hasieratik azaltzen saiatuko dira.

Idea horretatik sortu zen Extremadurako Intranet (Juntaren bulego guztiak elkarren artean konektatzen ditu, baita erkidego horretako ikastetxe guztiak ere).



Hezkuntzako Sare Teknologikoko ia 100.000 ordenagailuak abian jartzeko behar izango ziren baliabideak kalkulatzeko, softwareen jabetza-lizentziak lortzea bideraezina zela erabaki zuten. Horregatik, software librearen bidea jorratu zuten.

Une horretan antzeman zuten oztopo bakarra izan zen, instalaziorako informatika-ezagutza nahikoak beharrezkoak izango zirela, eta horrela sortu zen "gnuLinEx" (instalazio errazeko programa libreen multzoa, inolako mugarik gabe erabili, eraldatu, kopiatu

edo zabaldu daitezke).

Gaur egunean software librearen gaiak Extremadurako enpresa teknologiko txikiei aberastasuna eta enplegua sortzeko benetako aukerak ematen dizkiela ohartu dira proiektuaren arduradunak.

Enpresa Txiki eta Ertainei (ETE) zuzendutako LinEx aurkeztu berri dute: "**LinEx Empresa**".

gnuLinEx teknologian oinarrituta dago, eta enpresen osoko kudeaketarako berariazko 100 aplikazio baino gehiago ditu (komunikaziorako eta kudeaketarako —fakturazioa eta kontabilitatea— aplikazioez gain programaziorako eta diseinurako aplikazioak ere baditu).

Ekimenaren **helburuak**, oraindik barneratu ez dituzten enpresek IKTak sartzea, teknologia hauek erabiltzen dituzten enpresei tresna berritzaileak prozesu luze eta garestirik gabe eskuratzeko aukera ematea; eta, azkenik, ETE hauen eskariak betetzeko adinako tokiko sektore teknologikoa sortzea eta garatzea.

### ➤ Madrilgo Erkidegoa

Madrilgo Komunitateko Hezkuntza Kontseilaritzak hedapenerako bere GNU/Linux aurkeztu berri du: **MAX (MAdrid\_LinuX)**. Hezkuntza alorrerako kode irekiko sistema eragile bat eta aplikazio-multzo zabala da (hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasgai-zerrendan dauden Informatika gaiak irakasteko aukera ematen dute).

Hauk dira eskaintako aplikazioak: ofimatika-paketea, diseinu grafikorako aplikazioak, audio/bideo irakurgailuak eta editoreak, CDak eta DVDak grabatzeko aplikazioak, CAD programak, Java-ko

programazioa, etab. Interneten edozein erabiltzailek topa ditzakeen osagarri mota guztiak exekutatzeko ere bermatu da (flash, java, pdf, mpg fitxategiak, etab.)

Ingurune grafiko erabilienak ere gehitu dira **MAX**-en: **GNOME** eta **KDE**.

Azken finean, DVD-Liven hedapena da eta **Debian**-en oinarritutako sistema eragilea du.

Ekimen honek bultzatu nahi dituen helburu nagusien artean honakook azpimarratuko ditugu: hezkuntzaren esparruan kode irekiko teknologien erabilera sustatzea; informazioaren gizartean barneratzen lagunduko duen softwarea hezkuntzako komunitatean zabaltzea; kostu gehigarririk izan gabe aplikazioak eskuratzeko erraztea eta kode irekiko ingurune osoa eskura jartzea.

### ➤ Aragoi

Aragoiko Gobernuak eta Zaragozako Unibertsitateak GLUZ software librearen hedapena aurkeztu berri dute. Bi erakundeen artean burutu dute eta CD-Live moduan eskura daitezke.

Unibertsitateko ikasleak eta Aragoiko Gobernuako langileak izango dira erabiltzaileak, eta beraz, 50.000 kopia banatzea aurreikusitako dute.

### ➤ Valenziako Erkidegoa

Administrazioko kudeaketa-esparru guztietan (hezkuntza-sisteman bereziki) ezartzeko asmoa du Gobernuak.

Generalitat Valenciana-ren eta Zientzia eta Teknologia Ministerioaren artean sinatutako hitzarmena nabarmentzen da emandako pausuen artean. Hitzarmen honen bidez, Valenziako hezkuntza-sistemako zentroetan datozen urteetan 25.000 ordenagailu berri ezarriko dira.

**"Slen abantaila garrantzitsuenak batez ere estrategikoak dira (eta ez bakarrik ekonomikoak)."**




aurrera doan  
**herria**



### OpenOffice vs StarOffice

OpenOffice da Software Librearen arloan gehien erabiltzen den aplikazio ezagunenetakoa. Sun moduko enpresa handi baten eta Hedapen Librerako Komunitatearen arteko elkarlanaren adibideetako bat da. StarOffice-n kodea Sun enpresak "askatu" zuen, eta hedapen libreko bertsioa agertu zen: OpenOffice.org. StarOffice-n bertsioa merkaturatzen jarraitzen du Sun enpresak, eta gainera OpenOffice-n garapenean laguntzen jarraitzen du. Dualtasun honi esker, StarOffice erosten duten erabiltzaileek badakite lizentziaren, euskarriaren eta zerbitzuen prezioa ez dela altua izango, enpresa askok euskarria, zerbitzuak eta prestakuntza eskaintzen duten programaren lizentzia-kosturik gabeko beste aukera bat ere badutelako.



## MICROSOFT

Microsoft enpresak "Microsoft-eko Kode Partekatua Ekimena (*Shared Source Initiative*)" abian jarri berri du, eta horrela, bere produktu nagusien **iturri-kodea** bere bezeroen, partner-en, garatzaileen, gobernuen, hezkuntza-erakundeen eta bere azpiegitura teknologikoko funtzionamendua eta segurtasuna hobetu nahi duen edonoren eskura jarri du.

Berritasun teknologikoaren esparruan asmoa da IKTen inguruko begirune soziala areagotzea hezkuntza-sistemaren oinarri legez hartuta, eta ez prestakuntzaren beste atal bat legez. Horretarako, software librearen kontzeptua hedatuko da pixkanaka (Erkidegoak dituen berezitasunetara moldatuz).



Gaur egunean Informatikako maila ertaineko eta goimailako 50 institutu inguruk lan egiten dute software librearekin (**Lliurex** deitzen da hedapen hau), eta laster Batxilergo Zientifiko eta Teknologikoko beste berrogeita hamar bat institutu atxikiko direla uste da.

## ➤ Andaluziako Junta

Ekipo zahar edo zaharkituetan (disko gogor txikiak, memoria gutxi, etab.) funtzionatzeko gai den **Linex-mini** bertsioa hedatzen hasteko asmoa du.

## ➤ Gaztela-Mantxa

Hasteko, bere Linux propioa hedatzen hasi nahi du. Informatika saila Industria Kontseilaritzaren barruan dagoenez, eskualdeko industria-ehuna sustatzea da ekimen honen helburu nagusia.

Hezkuntza-sektorea software libreaz informatizatzea da ikertzen ari diren

## "IMAGINE SOFTWARE"

Proposamen berri bat ezagutzera eman da oraintsu ("Imagine Software" delakoa), eta erkidego autonomoen artean kode irekiko softwarea erabiltzea eta garatzea sustatu nahi da.

Ekimen honen helburu nagusia, Informazioaren Gizartea garatzeko alternatiba teknologiko moduan Software Libre (SL) finkatzea eragozten duten oztopoak ezabatzea da eta jarduerarekiko ireki, integratzaile eta **lankidetzazko** batean burutzen da.

Esparru **publikoak** (Informazioaren Gizartearen sustapena, garapena eta artikulazioaren agente arduradun nagusia) eta **privatuak** (administrazioarekin batera Software Librearen inguruan ehundura bat garatzen laguntzen duena) batera bultzatutako ekimenetik hasi beharko du.

Guzti horrengatik **elkarte** modura ulertzen da "Imagine Software"-a, irabazi-asmorik gabekoa, erakunde publiko eta pribatuen multzo batez osatua eta erakundeen arteko kolaborazio-esparruan Software Libre erkidego mailan eta estatu mailan finkatu eta hedatzeko asmoa duena.

## EGITURA ETA ANTOLAKETA

Ekimen honek egitura **mistoa** izango luke, honela osatua:

- **Egitura egonkorra:** erakundearen jardura-multzoa erabaki eta kudeatuko luke.

- **Batzordeak:** jardueraren norabide estrategikoa erabakiko lukete (lehentasuneko proiektuak, elkarlanerako mekanismoak, etab.).

## ESPERO DIREN ONURAK:

- ✓ Informazioaren Gizarteak itxura hartzen bultzatuko duten ekimenen egiazko esparrua izango lukete erakunde publikoek.
- ✓ Informazio-sistemak garatzeko ingurune lehiakorren alde Software Libre ezartzea galarazten duten oztopoak (ezjakintasuna eta fidagarritasuna) kenduko lirake erakunde pribatuentzat, eta horrela, soluzioen benetako eskatzaile bihurtuko lirake.
- ✓ Software Librearen esparruan garatutako ezagutzak eta ahaleginak benetako ingurunera eramateko jardura-eremua izango lukete unibertsitateek.
- ✓ Software Librean oinarritutako soluzio integratzaileetan nagusitasuna lortuko lukete IKT (Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologia) konpainiek, eta tokiko IKTaren garapena bultzatuko litzateke.

Erakunde ezberdinen sistemak (Administrazio Publikoenak bereziki) integratzea oso garrantzitsua da gaur egungo herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak bete ahal izateko. Horretarako, zerbitzu guztiak estandar irekietan eraikitakoak izatea funtsezkoa da, guztien integrazioa errazteko eta bermatzeko.



beste ekimen bat (irakasleen tresnerian software librea sartu nahi da).

Gizartearekiko agertzen duten ekimenen artean, publikoari irekitako zentroek (telezentroek) arranke dualeko tresnak edukitzea nahi dute gobernukoek.

### ➤ **Katalunia**

2005etik aurrera euren hedapen propioa sortu eta zabaltzeko lehiaketa publikoa aterako dute. Hezkuntzaren esparruan (2.000 ikastetxe inguru) erabiliko da bereziki.

## **ADMINISTRAZIO PUBLIKOETARAKO ABANTAILAK**

- Baliabideei probetxua ateratzea: administrazio publikoek sustatutako aplikazio asko herritarrek ere erabiltzen dituzte. Horregatik, zentzu honetan egindako inbertsio publikoen onurak hiritarengan ere eragiten du, euren zereginetarako erabiliko baitituzte produktuok. Honen adibide garbi bat: programen “lokalizazioak” (komunitateko hizkuntzara egokitzea).
- Tokiko industria sustatzea: Softwareetako jabego-lizentzietan gastatzen den diru osoa produktuaren fabrikatzailearentzat izango da, eta ez du erkidego autonomoan eraginik. Software Librea erabiliz tokiko enpresak lehiakorragoak izango dira, beste enpresek duten baldintza beretan eskaini ahal izango baitituzte zerbitzuak (baita programak ere).
- Hornitzaileekiko independentzia: Oinarritzko eta legezko baldintza izaten da irizpide hau batzutan. Oinarri Teknikoen Plegu (OTP) batean zehaztu beharko ditu administrazioak bere beharrak, horrela interesa duen edozein enpresak lor baitezake kontratua. Jabego-softwarearen kasuan, ordea, produktu bakoitzerako hornitzaile bakarra dago (bitartekari bat baino gehiago agertu badaiteke ere).
- Beharretara egokitzea: Administrazioak

jabego-produktu bat erosten duenean, produktuaren ekoizlearekin akordio bat iritsi behar du moldatu nahi badu, izan ere, bera da legez (eta batzutan teknikoki) egin ahal duen bakarra. Produktu aske bat erabiltzean, aldiz, bertako langileek edo kanpokoek molda dezakete.

**“Bereziki hezkuntzaren mundura zuzendutako kode irekien hedapena garatzen ari da autonomia erkidego asko.”**

- Segurtasuna: Kasu askotan datu pribatuak (fiskalak, penalak, erroldakoak...) maneiatzen dituzte sistemek, eta horre-

gatik, administrazio sistemek euren zereginak soilik burutuko dituztela bermatzeko ezinbesteko (eta kasu askotan legezko) baldintza da. Eta horrela, “kutxa beltzak” ahaztuko ditugu.

- Erabilgarritasuna: Denbora pasatakoan jabego-programa bat erabilgarri egongo den ziurtatzea zaila izaten da.

## **ONDORIOAK**

Gaur egunean Software Librearen ezarpena hezkuntza-sistemari begira egiten bada ere, dituen abantailak eta estandar publikoekiko errespetua ikusita, eta administrazioaren ikuspuntu koherenteagatik, software librea hezkuntzatik gainontzeko administrazio-organoetara zabaltu beharko dute derrigorrez administrazio publikoek.

Ikusi dugun moduan, batez ere estrategikoak (eta ez bakarrik ekonomikoak) dira abantaila garrantzitsuenak. Eta beraz, erabaki teknikoaren esku baino, erabaki politikoaren esku geratzen dira neurri handi batean.

Etorkizunean ikusiko dugu orain hemen biltzen ditugun ekimen hauek agindutako guztia errealitate bihurtu den, edo hemendik urte batzuetara informatikaren historiako oin-ohar bat besterik ez diren. Etorkizunaren zain egon ordez, arretaz behatzea komenigarria izan daiteke...

aurrera doan  
**herria**



### **Software Librea bultzatzen duten Euskal Herriko enpresak**

- Ceintec  
[www.ceintec.com](http://www.ceintec.com)
- CodeSyntax S.L.  
[www.codesyntax.com](http://www.codesyntax.com)
- eFaber  
[www.efaber.net](http://www.efaber.net)
- NetKam  
[www.netkam.com](http://www.netkam.com)
- Ikusnet Taldea  
[www.ikusnet.com](http://www.ikusnet.com)
- Irontec  
[www.irontec.com](http://www.irontec.com)
- OWASYS  
[www.owasys.com](http://www.owasys.com)
- Praetorians MSAT /  
Webalianza  
[www.webalianza.com](http://www.webalianza.com)
- Sarematica, S.L.  
[www.sarematica.com](http://www.sarematica.com)
- Tuxtek  
[www.tuxtek.com](http://www.tuxtek.com)

**AESLI**  
**(Software Libreko  
enpresen elkartea)**  
[www.aesli.org](http://www.aesli.org)



## ALBOAN: Eusko Jaurlaritzako - Gobierno Vasco

### KZgunea Programa



[www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net)

**I**ndarrean jarri zenetik 3 urte bete ditu KZgunea programak, eta 250. zentroa irekitzearekin batera gertatu denez, bere jatorria zein izan den, zein helburuekin hasi zen eta gaur egunean duen egoera gogoratuko dugu.

2001. urtean “Euskadi Informazioaren Gizartean Plana” (EIGP) izeneko abian jarri zuen Eusko Jaurlaritzak, eta hona hemen helburua “...guztionezko Informazio Gizartea eraikitzeko proiektuan aurrerapauso nabariak ematea. Hala, beharrezkoa den kultur aldaketa sustatu behar dugu, baita herritarrak Internetera hel daitezen erraztasunak jarri eta merkataritza elektronikoa eta Ekonomia Berriaren enpresak bultzatu ere. Horiekin guztiekin batera, administrazioaren on line zerbitzuen eskaintza handitu behar dugu”.

Informazioaren teknologiak (IT) maila sozial guztietan sustatu nahi zen: oinarrizko hezkuntzan, herritarrengan, enpresan, kulturen eta administrazioan, eta horretarako

ekimen asko sortu ziren Plan honetatik abiatuta. Horietako bat ‘Konekta Zaitetz (KZ)’ programa izan zen, Internetera konektatutako ordenagailuen erosketak diruz lagundu zituen.

KZren ideien jarraipen moduan bestelako proiektuak ere sortu ziren —KZ WiFi, KZ

Mikroenpresak...—, eta horien artean zegoen Konekta Zaitetz Herritarra edo KZgunea (Konekta Zaitetz Gunea).

#### KZGUNEAREN PROIEKTUA

Informazioarako eta Komunikazioarako Teknologia (IKT) berrietan prestatzeko eta erabiltzeko zentro publikoak sortzeko ideaz hasi zen duela 3 urte (2001eko urrian)

KZgunea proiektua. Helburu nagusia “zulo digitala” (hots, ingurune digitala ezagutzen dutenen eta ezagutzen ez dutenen arteko espazioa, bereizketa sozial garrantzitsua sortzeko arrisku-iturria) desagertzen laguntzea zen, eta bere jarduerak bereziki etxekoandreei, erretiratuei, langabetuei eta immigrantei zuzendu ziren.

#### BAINA ... ZER DA KZGUNE BAT?

Herritarrek Internet erabiltzen doan ikasteko instalazio eta tresneria egokiak dituen izaera publikoko zentroa da KZgunea.

Herritarrek prestakuntza-eskaintza zabala dute bertan (ikastaro eta mintegien artean 400 ordu baino gehiago, eta horietatik 272 ordutan mikroenpresek dituzten berariazko beharretaz arduratzen dira).

**“Zentro publikoen sarea osatzeko ideiarekin abiatu ziren KZguneak 2001. urtean.”**



KZgunearen datuak	Azaroa 2004	Helburuak azken
Erregistratutako erabiltzaileak	155.000	185.000
Oinarrizko Internet (prestatuak)	65.000	74.000
Internet aurreratua (prestatuak)	32.000	—
Mikroenpresak (prestatuak)	2.000	—
Komunitate birtualak	162	—
KZgunea duten udalerriak	235	250
Irekitako zentroak	250	—
Populazioko estaldura	1.719.096	1.851.732
Araba	222.658	254.896
Bizkaia	925.786	1.005.461
Gipuzkoa	570.652	591.375
Tutoreak	118	—
Ikastaroetan eskainitako orduak	417	—
PCa duten postuak	2.500	—
Erakunde laguntzaileak	24	—
Linux duten ordenagailuak	200	—
IT Txartela duten herritarrak	2.000	—



Erabiltzaileen edozein zalantza argitzeko prest dauden tutoreek kudeatzen dituzte zentro hauek.

## KUDEAKETA-EREDU

EUDEL-en (Euskadiko Udalen Elkartea) laguntzari esker Udalekin akordioa erdietsi zuen Eusko Jaurlaritzak, eta zentroak irekitzen lagundu zuten Udalek; horretarako, Udalak lokala eta altzariak jarriko ditu eta mantentze-kostuak bere egingo ditu.

Eusko Jaurlaritzak, halaber, antolakuntza —langileak eta enpresak—, giza baliabideak —tutoreak— eta baliabide teknologikoak —ordenagailuak, etab.— jarriko ditu.

Zentzu honetan, KZgunea programak ISO 9001-2000 eta IQNet **kalitate-ziurtagiriak** jaso ditu AENOR-en eskutik, dituen baliabide teknikoen eta giza baliabideen kudeaketa egokiari esker.

## GAUR EGUNGO EGOERA

“Kalitate Plan” bat dute proiektuaren arduradunek. Plan honek adierazle eta helburu objektibo multzo bat du, uneoro aurrerakada-maila egiazta-tzeko balio diena.

### • Irispena:

1go helburua: 15 urte baino gehiago duten herritarren %10ari zerbitzua eman, eta 185.000 erabiltzaile izatera iritsi.

2. helburua: EAEko udalerrri guztietan (250) KZgunea zentro bat ireki. Zentro berrien irekitze-aurreikuspenaren arabera, aurtengo 242 udalerritarira iritsiko da (irekita dauden 263 zentroei esker). 2005. urtearen hasieran 8 udalerrri gehituko dira (Pasaia, Trapagaran, Ortuella eta Lemoa adibidez), eta Erkidegoko mapa osatuko da.

**“EAEko udalerrri guztietan (250) KZgunea zentro bat irekitzearekin zerbitzuan %100 lortu nahi da.”**

### • Prestakuntza:

1go helburua: 15 urte baino gehiago duten euskal herritarren %4 (74.000 herritar) Interneteko oinarrizko erabileran prestatu. Horrela, orain arte 65.000 pertsona prestatu dira Internet buruzko oinarrizko ikastaroetan, hau da, helburuko populazioaren %3,4.

### • Zulo Digitala:

KZguneetan izena eman duten erabiltzaileen datuak aztertzen baditugu, orain arte prestatu diren 63.000 herritarretatik (helburuko populazioaren %85) gehienak emakumeak dira (%63,02), langabetuak, etxekoandreak eta erretiratuak (%50,75), eta 35 urte baino gehiagokoak (%72,6).

### • Populazio internauta:

KZgunea sareari esker Euskadiko populazioaren %34,3 ohiko internauta da (2004ko 2. hiruhilekoa, Eustat). Agertu diren azken datuen arabera, Madrilen atzetik Estatuko bigarren tokian dago EAE, 1999an zortzigarren postuan bazegoen ere.

## IRISTERRAZTASUN HANDIAGOA

Azkenik, proiektuaren arduradunen irrika da IKTen (gizarteko esparru eta sektore guztietan) erabilpena sustatzea da, eta horretarako [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) interneteko atariaren diseinua berritzeari ekin diote, WAI (Webeko Irriesterraztasunerako Ekimena) deitutakoaren bidez Interneteko Munduko Partzuergoak ezarri dituen arau eta eruedetara (W3C) egokitzeke.

“Iristerraza” den hasierako bertsioa jadanik dago KZgunearen interneteko web atarian, aurreko bertsioarekin (“ez-iristerraza”) batera. Edukiak eta oraingo zerbitzuak poliki-poliki migratzen ari dira aurtengo, AAA iristerraztasun-maila iristeko asmoz, eta 2005. urtean bikoiztasuna ezabatu nahi dute arduradunek.



## KZgunea eta Linux

Linux Sistema Eragilea ezartzen ari da Eusko Jaurlaritza KZguneetan. Horrela, Euskadiko zentro guztietan libreki hedatuko den software alternatibo hau duen ordenagailu bat gutxienez ezarri nahi da. Proiektuaren arduradunen iritzian, sei PC edo gehiago duten lokaletan Linux sistema bi ordenagailutan instalatuko da.



Sistema eragile hau PCetan gehitzeko erabakia, hilabete batzutan (aurtengo urtarila eta abuztua bitartean) KZguneetako 26 ordenagailutan **Mandrake 10** (euskaraz eta gaztelaniaz) ekipoak, **OpenOffice** ofimatika-programa, irudien GIMP editorea eta Interneteko **Mozilla** nabigatzailea erabiltzean erabiltzaileen erantzuna nolakoa zen ikustean hartu zen.

**Informazio gehiago nahi izanez gero: [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) webgunea eta AURRERA 5. zk. eta Gehigarria (2001eko iraila eta urria).**



## EJIE MARKA

Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE) bere irudi korporatibo berria ofizialki ezagutzera eman zuen pasa den azaroaren 23an.

Diziplina askoko lantaldeak (EJIE/Gobernua) burutu du sormen-prozesua eta inguru grafikoa aztertu du, baita irudi berriarekin transmititu nahi duten egungo ezaugarri eta balio propioak ere.

EJIEren ezaugarriak eta balioak transmititzeko gaitasuna da irudi berriaren ezaugarri nagusia.

- **Ezaugarriak:** Zerbitzu Enpresa, Publiko/Pribatu dualtasuna, Euskalduna, Traktorea eta Teknologia.
- **Balioak:** Kalitatea, Berritasuna, Segurtasuna, Sendotasuna, Heldutasuna, Bizkortasuna, Kualifikatua eta Langile kualifikatuak.



Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak  
Sociedad Informática del Gobierno Vasco

Diseinu berria begiratzeko badugu, hauek nabarmentzen dira:

- ✓ Aurreko markatik **jarraitzen** duten elementuak daude, garatuta berriaren barneratzen direnak. (Karratua, edo "e" minuskula daude bietan).
- ✓ **Garapenean** balioa galdu izanagatik desagertu diren elementuak ere badira. (S.A. ezaugarria, tipografia eta ikurraren arteko bereizketa, orain bat egin baitute).
- ✓ Logotipo honetarako Eusko Jaurlaritzak diseinatu eta garatu duen "Basque" **tipografia** erabili da.
- ✓ **Bi ikusmen-eremu** daude, Gobernuaren "EJ" eta zerbitzuen alde teknologikoa adierazten duen EJIE-ren "ie". Espazio ireki baina babestuan barneratzen dira.
- ✓ **Kolorea**, urdin teknologikoaren eta berdearen arteko nahasketatik lortutakoa da. Euskadiren promoziorako erabiltzen diren itsasertzeko eta barnealdeko paisaien koloreak dira.

Marka berriaren ezarpen-prozesuak ez du aurrekoa etengo, eta 2005ean zehar elkarrekin ikusi ahal izango ditugu, poliki ordezkatzen joango baita.

Bukatzeko, Eusko Jaurlaritzatik ongietorria eman nahi diogu marka berriari, eta aurrekoak izan zuen adinako arrakasta izatea opa diogu.



## OFFICE 2003 EUSKERAZ

Euskarazko bertsio berri hau erabili ahal izateko, **Language Interface Pack (LIP)** delako 7,5 Mb dituen fitxategia behera kargatu besterik ez da egin behar. Modulu honek hizkuntzaren interfazea kargatzen du ordenagailuan dagoeneko instalatuta dagoen bertsioan.

Menuen, elkarrizketa-koadroen, oharren eta bestelako elementuen itzulpena **Elhuyar** eta **UZEik** egin dute, eta Kultura Saileko Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak gainbegiratu du.

LIP direlakoak erabiltzeko teknika berri honi esker garapenerako aldia asko murriztu da, eta soluzio **ekonomikoagoa** lortu da, beraz. Erabiltzaileek, beraz, ez dute Euskarazko Office 2003 erosi behar. Webetik erabiltzaileari dagozkion LIPa behera kargatu eta Gaztelaniazko bertsioan instalatu besterik ez dute egin behar. LIP moduluak behera kargatzeko:

[www.euskadi.net/euskara\\_soft](http://www.euskadi.net/euskara_soft)

[www.microsoft.com/downloads/search.aspx?displaylang=eu](http://www.microsoft.com/downloads/search.aspx?displaylang=eu)

Burututako lokalizazioak Windows 2000n eta XPn dabilzan Word, Outlook, PowerPoint eta Excel hartzen ditu. Microsoft-en ekimenez egin da lan hau, eta itzulpenari eta lokalizazioari dagozkien kostu guztiak bere gain hartu ditu.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Mandrake Linux 10.0 kaleratu berri du, 8.2 bertsioa eguneratuta, hain zuzen ere. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzuan eskura daiteke (3 €) edo Gobernuaren webgunetik behera karga daiteke.

Itzulpena oraingoan ere UZEik eta Elhuyarrek egin dute eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak gainbegiratu du. Bilduma- eta koordinazio-lanak Zundana enpresak burutu ditu, eta koordinazio orokorra eta froga-lanak EJIEk egin ditu.

